



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2006ko ekainaren 27a, asteartea.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena

HASIERA-ORDUA: 19:02 **AMAIERA-ORDUA:** 19:37

BERTARATUAK:

Alkatea

Ramon Etxeberria Aldaz

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Noemi Ostolaza Arkauz, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ainhoa Leunda San Sebastian, Martxiel Genoba Solabarrieta, Asier Yeregi Campos, Maria Elena Legarra Alfaro, Eugenio Cotado Iturain, eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK:

Aurora Azkue Mujika, amatasun baja dela eta.



Aztergai zerrenda

- 1.- Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2006ko maiatzaren 30eko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen kredituen aldaketarako 1/2006 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 3.- Onartzea, egoki bada, 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen kredituen aldaketarako 2/2006 zenbakidun espedientea, kredituen gehitze modalitatean.
- 4.- Onartzea, egoki bada, “Orioko Alde Zaharrear Oinezkoen Irisgarritasuna Hobetzeko Egitasmoaren Exekuzioa” -1. fasea-, OKANDI INGENIERIA, S.L.-k idatzia, kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontua 1.301.396,41 eurotakoa duena (B.E.Z. barne).
- 5.- Onartzea, egoki bada, “Orioko Alde Zaharrear Oinezkoen Irisgarritasuna Hobetzeko Egitasmoaren Exekuzioa” -1. fasea- obrak kontratatzeako Klausula Administratibo Partikularren Plegua, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko A.I.U.3.-2 (Hondartza) dagoen eremuaren izena.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko funtzionarioen lan baldintzen Akordio Arautzailea.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko lan-kontratuko pertsonalaren lan baldintzen Hitzarmen Kolektiboa.
- 9.- ALAZNE GOENAGA MUXIKA-k aurkeztutako mozioa.
- 10.- Eskariak eta galderak.

Orio, 2006ko ekainaren 27a



Esan-eginak

1. IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO MAIATZAREN 30EKO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA, 2006ko maiatzaren 30eko Ohiko Bilkuraren aktaren zirriborria.

2 . ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN KREDITUEN ALDAKETARAKO 1/2006 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2006ko ekainaren 22an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA**, 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion udal honen kredituen aldaketarako 1/2006 zenbakidun espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean.

2. Indarrean dagoen araudiaren xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:



- a) *Erakutsita dagoen lekua:* Idazkaritza-kontuhartzaitza.
- b) *Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:* Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- c) *Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:* Toki Ogasunen Arautzailea den, abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten udalbatza-kideek.
- d) *Inpugnatzeko arrazoiak:* Aipatu berri den legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) *Aurkezteko bulegoa:* Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).
- f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udal Plenoa.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN KREDITUEN ALDAKETARAKO 2/2006 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA, KREDITUEN GEHITZE MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2006ko ekainaren 22an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA**, 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion udal honen kredituen aldaketarako 2/2006 zenbakidun espedienteari, kredituen gehitze modalitatean.



2. Indarrean dagoen araudiaren xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontuhartzailletza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Toki Ogasunen Arautzailea den, abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten udalbatza-kideek.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Aipatu berri den legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udal Plenoa.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4. ONARTZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO ALDE ZAHARREAN OINEZKOEN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO EGITASMOAREN EXEKUZIOA” -1. FASEA-, OKANDI INGENIERIA, S.L.-K IDATZIA, KONTRATA BIDEZKO EXEKUZIOAREN AURREKONTUA 1.301.396,41 EUROTAKOA DUENA (B.E.Z. BARNE).

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Hirigintza eta Obren Batzorde Informatzaileak 2006ko ekainaren 12an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:



ONARTZEA, “Orioko Alde Zaharrea oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko egitasmoaren exekuzioa” -1. fasea-, OKANDI INGENIERIA, S.L.-k idatzia, kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontua 1.301.396,41 eurotako duena (b.e.z. barne).

5. ONARTZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO ALDE ZAHARREAN OINEZKOEN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO EGITASMOAREN EXEKUZIOA” -1. FASEA- OBRAK KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, PROZEDURA IREKIZ, OHIKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza eta Obren Batzorde Informatzaileak 2006ko ekainaren 12an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1. **ONARTZEA** “Orioko Alde Zaharrea Oinezkoen Irisgarritasuna Hobetzeko egitasmoaren exekuzioa” -1. fasea- obrak kontratatzeiko klausula administratibo partikularren plegua, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez.
2. Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege-dekretuaren 78. artikuluan ezarritakoaren arabera, publiko egiten da Baldintza Pleguen ondorengo laburpena:

1. Erakunde esleipenduna.

- a) Erakundea: Orioko Udala
- b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontuhartzailatza.



2. Kontratuaren xedea:

- a) Xedearen deskribapena: “Orioko Alde Zaharrea Oinezkoen Irisgarritasuna Hobetzeko egitasmoaren exekuzioa” -1. fasea-obren exekuzioa, kontratu izaera izango duten proiektu teknikoaren eta espedientean agertzen den dokumentazioaren arabera.
- b) Exekuzio epea: Gehienezko epea 8 hilabetekoa izango da.

3. Tramitazioa, Prozedura eta adjudikatzeko era:

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Adjudikatzeko era: Lehiaketa.

4. Lizitazioaren zenbatekoa:

1.301.396,41 euro (B.E.Z. barne). Kopuru hau lizitatzailerik hobetu dezakete.

5. Bermeak:

- a) Behin behinekoa: 26.027,93 euro.
- b) Behin betikoa: adjudikazioaren zenbatekoaren % 4a.

6. Iragarkien gastuak:

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7. Kontratistaren sailkapena:

- Taldea C, azpitaldea 2, kategoria d.
- Taldea C, azpitaldea 3, kategoria d.
- Taldea C, azpitaldea 9, kategoria d.



8. Agiriak jasotzeko:

Espedienteko dokumentazio teknikoa PLANITEC KOPIA DENDAN aztertu ahal izango da: Urdaneta, 4. Donostia.

9. Eskaintzak aurkezteko:

- a) Epea: 26 egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
- b) Aurkeztu behar diren agiriak: Baldintza orrietan zehaztutakoak.
- c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzaitzan. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.
- d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

10. Eskaintzen irekiera:

- a) Tokia: Orioko Udaletxea.
- b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo laugarren laneguna. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.
- c) Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

6. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO A.I.U.3.-2 (HONDARTZA) DAGOEN EREMUAREN IZENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Hirigintza eta Obren Batzorde Informatzaileak 2006ko ekainaren 12an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, HONAKO HAU



ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA Orioko A.I.U.3.-2 (Hondartza) dagoen eremuaren izenak Abaromendi Kalea izango duela.

7. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO FUNTZIONARIOEN LAN BALDINTZEN AKORDIO ARAUTZAILEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonalaren Batzorde Informatzaileak 2006ko ekainaren 22an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA Orioko Udaleko funtzionarioen lan baldintzen akordio arautzailea –UDALHITZ–.

8. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO LAN-KONTRATUKO PERTSONALAREN LAN BALDINTZEN HITZARMEN KOLEKTIBOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonalaren Batzorde Informatzaileak 2006ko ekainaren 22an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA Orioko Udaleko lan kontratuko pertsonalaren lan baldintzen hitzarmen kolektiboa –UDALHITZ–, 14, 15, 18, 30 eta 31 artikulua izan ezik,



Kontserbatorio eta Udal Musika Eskoletako irakasle eta irakasle ez den pertsonalaren lanaldiari, lan-egutegiari eta oporrei dagozkienak.

9. ALAZNE GOENAGA MUXIKA-K AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Jarraian, Udalbatzarrak ALAZNE GOENAGA MUXIKA andreak aurkeztutako mozioaren berri du, eta hitzez hitz honela dio:

“Azken hilabetetan bizi dugun egoera politiko itxaropentsu honen baitan, Euskal Herriko eragile politiko, sindikal, instituzional eta sozial guztiok inoiz baino ardura handiagoa daukagu.

Ardura, Herri honi historikoki ukatu zaion askatasunaren bidean urrats atzeraezinak eman daitezzen. Ardura, eragile guztien elkarrizketa eta akordioaren bitartez, herri honi hitza eta erabakia errespetatuko zaion eskenatoki batera bidean urratsak eman daitezzen. Bide horretan oztopoak izan daitezkeen elementuak gainditzen joateko ardura.

Euskal Herrian, eskubide zibil eta politikoen ukazioak hor dirau eguna joan eta eguna etorri. Besteak beste, ehunka dira oraindik herritarren borondatea ukatuz osatuak izan jardunean jarraitzen duten Udalak. Ehunka dira, zilegitasun demokratikorik gabe kargu instituzionalak betetzen diharduten alkate, zinegotzi eta foru hautetsiak. Era berean, ehunka dira hautetsi izateko eskubidea ukatua dutenak eta mikaka hautatzeko eskubidea urratu zaien euskal herritarrak.

Baina azken hiru urte hauetan, ukazio zurrunbilo honen guztiaren baitan, ehun hautetsi baino gehiagok ez zegokien karguari uko egin diote. Egoera hau gainditu beharraren inguruan ahots asko agertu dira. Baita Lege hau bultzatu duten alderdietatik ere. Herritarren gehiengo zabalak, denboran egun bat ere atzeratu gabe ukazio hau gainditzea exijitzen du.

Euskal Herrian irekitzen ari den bide honetan, oztopo oso larria suposatzen du ilegalizazio-apartheid politikoak. Prozesua indartzen bidean, ilegalizazioa gainditzeko urratsak ezinbestekoak dira. Interes pertsonal eta partidistak utzi eta prozesuaren norabidean urratsak ematea funtsezkoa da. Garaia da.



*Ilegalizazio-apartheid-a, gainditu beharreko oztopoa da. Bidetik kendu behar dugun oztopoa, hain zuzen ere. **Hau guztia kontuan izanik, honako oinarri hauek bere egiten ditu Udal honek:***

- 1. Udal honek, Euskal Herrian eskubide zibil eta politikoen errespetua aldarrikatzen du eta sortu den egoera politikoa sendotzeko eskubide horien aldeko urratsak ematea ezinbestekoa dela deritzo.*
- 2. Aipatutako eskubide horien urrapen larria den heinean, ilegalizazio politika bertan behera uzteko aldarrikatzen dio Udal honek PSOE-ko Gobernuari.*
- 3. Udal honek, ilegalizazio politikaren ondorioz Udal hauteskundeetan herritarren babesa jaso zuten hautatuek beren eskubideak gauzatuak izan ditzaten urratsak emateko konpromisoa hartzen du; instituzio gisa egoerak eskatzen digun mailan egoteak, herritarren borondatea errespetatzera behartzen gaituelako.*

Euskal Herrian, 2006ko maiatzean”

Era berean, Udalbatzarrak EAJ/PNV eta EA udal talde politikoei aurkeztutako mozio alternatiboaren berri du, eta hitzez hitz honela dio:

“Oinarrizko eskubideak gure zuzenbideko eta zibilizazioko garapenaren emaitza zuzena dira, bai eta pertsona zein erakunde guztiek legeari eta zuzenbideari men egiten diotelako erakusgarri argienak ere. Alderdi Politikoei buruzko 6/2002 Lege Organikoaren bidez, hainbat oinarrizko eskubide, hala nola ideologia askatasuna, partaidetza politikoa eta biltzeko edo manifestatzeko eskubidea, zuzenean mugatu zaizkio pertsona multzo jakin bati.

Hala ere, ez dago eremu legegilearen, exekutiboaren edo botere judizialaren esku oinarrizko eskubideak onartzea. Hain zuzen, legegintzako gutxieneko garapena ere ez da beharrezkoa horiek libreki gauzatzeko.



Gizakiak izaki, gure funtsezko eskubide ezin besterenduzkoak dira, banako eta talde nortasunetik bereizi ezin direnak eta, halaber, bahitu ezin direnak. Horregatik guztiagatik, Zuzenbide Estatuan ezin dira preskribatu, justiziako zigor penal zehatzen mugapean edo salbuespen egoeretan izan ezik.

Arazoaren muina da, hain zuzen, ezinezkoa dela alderdi politiko bat, edo haren milaka aldeko, legez kanpo uztea aurretiko prozesu penalean litezkeen ardurak ebatzi gabe (Konstituzioko 9., 10., 21., 22., 23 eta 55. artikulua). Eta are gehiago milaka pertsonari oinarrizko eskubideak kentzen bazaizkio. Halakoxea da Alderdien Legearen zentzugabekeria, baina, hala ere, haren funtsa erabat indarrean mantentzen da.

Aurreko guztia dela eta, EAJ eta EA udal taldeek Udalbatzari proposatzen diote, honako mozio alternatibo hau onar dezan:

Orioko Udalbatzak Gorte Nagusiei eta Estatuko Gobernuari eskatzen die beharrezko izapideak has ditzatela Alderdi Politikoei buruzko 6/2002 Lege Organikoa indargabetzeko.

Orio, 2006ko ekainaren 23a”

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta gaia eztabaidatu ondoren, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 ezezko boto]:

EZ ONARTZEA ALAZNE GOENAGA MUXIKA andreak aurkeztutako mozioa.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), Yeregi (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Legarra (EA) eta Cotado (EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO BEDERATZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren kontrako botoarekin, guztira **KONTRAKO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

ONARTZEA EAJ-PNV/EA Udal Taldeak aurkeztutako mozio alternatiboa, udalbatzarraren akordio honetan agertzen den bezalaxe.

Emandako botoaren azalpenean, Jesús Rodríguez Pousa zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza, EAJ/PNV eta EA udal talde politikoei gaitzesteko mota honetako mozioak aurkeztea alderdi demokratikoak diren heinean, eta adierazten du ez duela inolaz ere ulertzen Alderdi Politikoen Lege Organikoaren indargabetzea eskatzea, izan ere, lege hori errespetu handikoa da hiritarren eskubide eta askatasunekin, eta lege horretan alderdi politikoen disoluzioa soilik auzi-bidetik eta Auzitegi Gorenaren erabakiaren bidez planteatzen da.

Era berean, Espainiako Konstituzioaren 9, 10, 21, 22 eta 23 artikuluen irakurketa pausatua proposatzen du, eta bertaratutakoei gogorarazten die Alemanian indarkeria babesten duten Erakundeak soilik administrazio-bidetik disolbatzen direla.

10. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari eta galderarik izan.

Horrenbestez, eta publikoan zeuden zenbaitzuk hitza hartu ondoren, Alkate-Lehendakariak bilkurari amaiera emateko agintzen du, eta erabakitako guztia jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATEA

IDAZKARIA